

18/2005 ebazpena, maiatzaren 4koa, Musikeneren Zuzendari Artistikoarena, Musikenen indarrean dagoen ikasketa-planeko hautazko eta aukera libreko irakasgaien helburuak zehazten dituen eta urteko eskaintza akademikoan irakasgai horiek txertatzeko edo berritzeko prozedura ezartzen duena.

Gaur egun goi-mailako musika-ikasketetan indarrean dauden ikasketa-planek unibertsitateetako curriculum-ereduak hartu dituzte oinarritzat alderdi askori dagokionez. Horietako bat irakasgaiak hiru kategoriatan sailkatzea da: derrigorrezkoak, hautazkoak eta aukera librekoak. Horri esker, malgutasun handiagoa ematen zaie ikasketa horiei, ikasleak irakasgai-portzentaje handi bat aukera dezakeelako bere lehentasun intelektualek arabera.

Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren 1999ko ekainaren 25eko Aginduak musikako goi-mailako lehen curriculumak ezarri zuen estatuan, eta indarrean dago hainbat kontserbatorio eta goi-mailako musika ikastegitan, Musikenen esate baterako. Curriculum horrek, hain zuzen ere, hartu du barne lehen aldiz aipatu berri dugun irakasgai-sailkapena goi-mailako musika-irakaskuntzan, eta hautazko irakasgaien eta aukera librekoen definizioa bildu du 8. artikuluan. Era berean, artikulua horretan aditzera ematen denez, <<617/1995 Errege Dekretuaren 6.2 artikulua aipatzen dituen ikastegi pedagogia- eta antolamendu-arloko autonomia baliatuz>> antolatu behar dira irakasgai horiek. Horregatik, egokia deritzot barne-araudi bat garatzeari, irakasgai horiek curriculumaren garapenean izan behar dituzten helburuak zehaztearren eta ikasturte bakoitzaren hezkuntza-eskaintza barne hartzeko eta berritzeko prozedura proposatzearren. Hala, honako hau xedatu dudala aditzera ematen dut:

1. artikulua. Hautazko irakasgaien definizioa eta helburuak.

Oro har, hautazko irakasgaiak honako hauek dira: espezialitate bakoitzeko derrigorrezko edukiak osatzen dituzten eta eskaintza espezifikoko baten barruan ikasleak aukera ditzakeen irakasgaiak. Eskaintza hori kudeatzeko moduaren arabera, hautazko irakasgaiak aurreespezializazio ildo jakin baten hezurdura osa dezakete, betiere titulazio bakoitzaren helburu orokorren barruan.

2. artikulua. Lehenetsutako ildoko hautazko irakasgaiak.

Kontuan izanik musikako goi-mailak askotariko espezialitateak dituela, hautazko irakasgaien aukera mugagabea izan daiteke. Horregatik, argigarria izan daiteke irakasgaiak hainbat arlotan biltzeko lehenetsutako ildoak finkatzea. Horrek ez du esan nahi ildo horietatik kanpoko irakasgaiak hautatzeko aukerarik ematen ez denik; aldis,

Resolución 18/2005, de 4 de mayo, del Director Artístico de Musikene, por la que se explicitan los objetivos de las asignaturas optativas y de libre elección en el plan de estudios en Musikene y se establece el procedimiento para su incorporación o renovación en la oferta académica anual.

Los planes de estudio actualmente en vigor para enseñanzas musicales de grado superior han tomado como inspiración los modelos curriculares de las universidades en muchos aspectos. Uno de ellos es la clasificación de las asignaturas en obligatorias, optativas y de libre elección, lo cual dota de un mayor grado de flexibilidad a las enseñanzas, en la medida en que deja un porcentaje considerable de asignaturas a la elección del alumno según sus preferencias intelectuales.

La Orden del Ministerio de Educación y Cultura de 25 de junio de 1999 estableció el primer currículo nacional de grado superior de música y está en vigor en diversos conservatorios y centros superiores de música, como es el caso de Musikene. Es este currículo el que precisamente introduce por primera vez en las enseñanzas superiores de música la clasificación de asignaturas antes comentada e incluye en su Artículo 8 una sucinta definición de las materias optativas y las de libre elección. En este mismo artículo también se menciona que la organización de estas materias ha de hacerse <<en el ejercicio de la autonomía pedagógica y organizativa de los centros a que se refiere el artículo 6.2 del Real Decreto 617/1995>>. Por ello, parece pertinente desarrollar una normativa interna en la que se perfilen los objetivos que han de tener este tipo de materias en el desarrollo del currículo y en la que se proponga un procedimiento para su inclusión y renovación en la oferta educativa de cada curso. Así, hago pública la presente resolución en la que dispongo lo siguiente:

Artículo 1. Definición y objetivos de las asignaturas optativas

Las asignaturas optativas pueden entenderse de manera general como aquellas que complementan los contenidos obligatorios de cada especialidad y que el alumno puede escoger discrecionalmente de una oferta específica. Dependiendo de cómo se gestione dicha oferta, las asignaturas optativas pueden incluso perfilar determinadas líneas de pre-especialización, siempre dentro de los objetivos generales de cada titulación.

Artículo 2. Líneas prioritarias para las asignaturas optativas.

Las posibilidades de asignaturas optativas pueden ser ilimitadas, teniendo en cuenta la variedad de especialidades del grado superior de música. Por ello, puede resultar aclaratorio fijar unas líneas prioritarias que enmarquen a las asignaturas en diversas áreas. Ello no significa que se impida la oferta de asignaturas optativas ajenas a dichas líneas, sino

orientazio-moduko jarraibideak nabarmendu nahi dira. Ondoren, Musikenen indarrean dauden espezialitateetarako lehenetsuak izan diren irakasgaien zerrenda bildu dugu:

1. *Instrumentu Nagusia irakasgaien garatu gabeko errepertorioa.*
Instrumentuaren errepertorio komunean barne hartu ez diren mugimendu estetikoak (Jazza, Musika Tradizionala eta Herrikioa, beste kulturetako Musika, etab.). Instrumentuaren errepertorioaren aldi historikoen musika-interpretazioa.
2. *Jardueraren analisisa.*
Instrumentuaren errepertorio espezifikoren analisi-teknika komunak aplikatzea, instrumentu horren interpretazioan eragin nabarmena duten honako alderdi hauen ikaskuntzan sakontzeko: konposizioa, historia, soziologia eta teknika.
3. *Transkripzio eta Konposizio Aplikatua.*
Askotariko partiturak instrumentu horretara transkribatzearen hastapenak, bakarka ala talde espezifikoetan. Instrumentuaren errepertorio komunerako aplikatutako konposizio-tekniketan sakontzea.
4. *Ganbera Musika eta Instrumentu Talde Espezifikoak.*
Ganbera-errepertorioan sakontzea, ikasketa-planean Ganbera Musika duten espezialitateetarako. Ganbera Musikaren oinarrizko praktika, praktika hori barne hartzen ez duten espezialitateetarako. Ikasketa-planeko derrigorrezko irakasgaietan barne hartuta ez dauden instrumentu-talde espezifikoak: klarinete-taldea, flautat-aldea, hainbat Jazz-talde, etab. Bi pianorako eta lau eskurekin jotzeko pianorako errepertorioa.
5. *Musikaren Didaktikaren Oinarriak.*
Instrumentu bakoitzaren didaktika espezifikoren eta konposizioaren oinarrizko alderdien hastapenak.
6. *Piano-akonpainamendu bokala, instrumentala edo koreografikoa.*

Jarraibideak askotarikoak diren arren, ezin dira alde batera utzi hainbat espezialitateetan izan litezkeen zailtasunak hautazko irakasgaien eskaintza espezifikoa ezartzeko. Hortaz, beharrezkoa izanez gero, Musika-erregulazioaren hainbat arlotako irakasgai orokorrak hartu ahal izango dira barne eskaintza horretan. Irakasgai horiek bi motatakoak izan daitezke: hautazko irakasgai gisa sortutakoak, eta espezialitate jakin batzuetan derrigorrezkoak izanik beste batzuetan hautazko gisa eskaintzen diren irakasgaiak.

Azkenik, espezialitateko bereko derrigorrezko irakasgaien maila aurreratuak ere onartu ahal izango dira hautazko irakasgai gisa. Horretarako, derrigorrezko irakasgaiak denbora

que sólo se pretende subrayar unas directrices orientativas. A continuación se incluye una relación básica de dichas líneas prioritarias para las especialidades en vigor en Musikene:

1. *Repertorio no desarrollado en la asignatura de Instrumento Principal*
Movimientos estéticos no incluidos en el repertorio común del instrumento (Jazz, Música Tradicional y Popular, Música de otras culturas, etc...). Interpretación musical de los periodos históricos del repertorio del instrumento.
2. *Análisis de Repertorio.*
Aplicación de las técnicas analíticas comunes al repertorio específico del instrumento para profundizar en el estudio de aspectos compositivos, históricos, sociológicos o técnicos de influencia significativa en su interpretación.
3. *Transcripción y Composición Aplicada*
Introducción a la técnica de transcripción de partituras diversas al instrumento a solo o en grupos específicos. Profundización en técnicas de composición aplicadas a las formas básicas de su repertorio común.
4. *Música de Cámara y Agrupaciones Instrumentales Específicas*
Profundización en el repertorio camerístico para aquellas especialidades que tienen Música de Cámara en su plan de estudios. Práctica básica de la Música de Cámara para las especialidades que no la incluyen. Agrupaciones instrumentales específicas no incluidas en las asignaturas obligatorias del plan de estudios: conjunto de clarinetes, conjunto de flautas, agrupaciones diversas de Jazz, etc...Repertorio para dos pianos y para piano a cuatro manos.
5. *Fundamentos de Didáctica de la Música.*
Introducción a los aspectos básicos de la didáctica específica de cada instrumento y de la composición.
6. *Acompañamiento pianístico vocal, instrumental o coreográfico.*

A pesar de esta variedad de directrices, no se pueden obviar las dificultades que pueden encontrarse en ciertas especialidades a la hora de establecer una oferta de asignaturas optativas específica para ellas. Por tanto, en caso de ser necesario, se podrán incluir también en la oferta asignaturas de carácter general, pertenecientes a áreas de conocimiento de Música. Estas podrán ser creadas expresamente como materias optativas, o bien podrán ser asignaturas obligatorias de una determinada especialidad que se ofrezcan como optativas para otras.

Finalmente, se podrán admitir como asignaturas optativas niveles avanzados de asignaturas obligatorias de la propia especialidad. En este caso la solicitud que a tal efecto haga el

luzeagoan eman beharko dira, eta irakasle arduradunak justifikatu egin beharko du luzapen horren beharra hartarako egiten duen eskaeran.

3. artikulua. Aukera libreko irakasgaien definizioa eta helburuak.

Aukera libreko irakasgaiak honako hauek dira: ikasleari bere curriculuma nahierara egituratzeko aukera ematen diotenak. Bestela esanda, bere espezialitatekoak ez diren ezagutzarlotan kredituak gainditzeko aukera ematen diote ikasleari, eta horrekin batera, titulazioa zeharkakoa bihurtzen da. Aukera librea bi eratarata antolatu ahal izango da: irakasgai konbentzionalen bidez, edota egitura libreagoa duten jarduera akademikoen bitartez (kolaborazio instrumentalak, hitzaldietan, ikastaro monografikoetan, mahai-inguruetan eta halakoetan parte hartzea, ...). Era berean, ikasketa-planetik kanpoko jarduera jakin batzuk eginez ere amortizatu ahal izango dira kredituak, betiere Musikeneren Zuzendari Artistikoaren 5/2005 Ebazpenean ezarritako jarraibideen arabera.

4. artikulua. Derrigorrezko ildoak aukera libreko irakasgaietarako.

Ikasleek kredituak era askotako jarduera akademikoen bitartez osa dezaketenez, komenigarria da Musikeneko aukera libreko irakasgaien eskaintza espezifikoa honako derrigorrezko ildo hauekin bat etortzea:

1. Arte Eszenikoak (Dantza eta Arte Dramatikoa)
2. Arte Plastikoak eta Artearen Historia
3. Kolaborazio Instrumentala (Ganbera Musika, Jazz Taldea, Konposizio Tailerra, etab.)
3. Musika Kudeaketa
4. Hizkuntzak
5. Informatika eta Musika Teknologia
6. Musika Kazetaritza
7. Psicomotrizitatea eta Komunikazioa (Jarrera Onbideratzea eta Alexander Teknika)

Ildo horiek eskaintza zorrotz zehazten duten arren, aukera librearen nondik norakoa bera dela-eta, bere espezialitatekoa ez den ikasketa-planeko edozein irakasgai eskatu ahal izango du ikasleak aukera libre gisa. Dena dela, honako kasu hauetan baino ez da onartuko eskaera hori: ikasleak aukeratutako irakasgai hori irakasleak aukera libreko gisa eskaini badu propio, edo eskaera onar diezaioten behar adina arrazoi ematen badu eta irakasleak talde jakin batean sartzea onartzeko moduko merezimendu garrantzitsuak adierazten baditu ikasleak.

profesor responsable deberá justificar la necesidad de la prolongación temporal de las materias obligatorias que ello comporta.

Artículo 3. Definición y objetivos de las asignaturas de libre elección

Las asignaturas de libre elección son las que permiten al alumno la libre configuración de su currículo, es decir, la superación de créditos en áreas de conocimiento diferentes a las de la especialidad, otorgando a la titulación un carácter transversal. La libre elección podrá organizarse en forma de asignaturas convencionales o también mediante actividades académicas de estructura más libre (colaboraciones instrumentales, participación en conferencias, cursos monográficos o mesas redondas, etc...). También se pueden amortizar créditos de libre elección mediante la realización de determinadas actividades externas al plan de estudios, siguiendo las pautas establecidas en la Resolución 5/2005 del Director Artístico de Musikene.

Artículo 4. Líneas obligatorias para las asignaturas de libre elección.

Dado que los alumnos pueden completar créditos de libre elección por actividades académicas de muy diversa naturaleza, resulta conveniente que la oferta específica de asignaturas de libre elección en Musikene se ajuste estrictamente a las siguientes líneas obligatorias:

1. Artes Escénicas (Danza y Arte Dramático)
2. Artes Plásticas e Historia del Arte
3. Colaboración Instrumental (Música de Cámara, Conjunto de Jazz, Taller de Composición, etc..)
3. Gestión Musical
4. Idiomas
5. Informática y Tecnología Musical
6. Periodismo Musical
7. Psicomotricidad y Comunicación (Reconducción Postural y Técnica Alexander)

A pesar de la clara delimitación que supone la definición de estas líneas, por la propia concepción de la libre elección, cualquier asignatura del plan de estudios que no pertenezca a la especialidad del alumno podría ser solicitada por éste en calidad de libre elección. No obstante, la aceptación de esa solicitud se atenderá sólo si la asignatura escogida ha sido ofrecida expresamente en calidad de libre elección por su profesor responsable, o bien si la solicitud del alumno está suficientemente motivada y se alegan méritos relevantes como para que el profesor acepte su incorporación en un grupo determinado.

5. artikulua. Hautazko eta aukera libreko irakasgaien eskaintza eta berrikuntza.

Hautazko edo aukera libreko irakasgai baten ardura hartu nahi duen irakasleak honako agiri hauek igorri beharko dizkio bere Departamentu Zuzendariari, hartarako ezartzen den epearen barruan:

1. Irakasgaiaren izena, kreditu kopurua, irakasle arduraduna edo arduradunak (bat baino gehiago badira, bakoitzak zein zatiren ardura hartzen duen adierazi beharko da), zein espezialitatekoa den (hautazkoen kasuan soilik), eta gehieneko ikasle-ratioa irakasle bakoitzeko.
2. Irakasgaiaren programa, honako hauek barne: edukiak, helburuak, metodologia, ebaluatzeko irizpideak, eta, hala badagokio, bibliografia edo erreperorioa.
3. Espezialitate baterako edo gehiagorako hautazko gisa edo aukera libreko gisa barne hartzearen interesa defendatzen duen txostena.
4. Lehendik ematen den irakasgai bat berritzeko, ordea, nahikoa izango da horren datuak eta programazioa eguneratuta aurkeztea.
5. Ikasketa-planerako derrigorrezko irakasgai bat beste espezialitate batzuetarako hautazko gisa, edo aukera libreko gisa eskaini nahi bada, berriz, nahikoa izango da zerrenda honetako hiru garren puntuan aipaturiko txostena aurkeztea.

Departamentu Zuzendari bakoitzak bere irakasleen eskaerak bilduko ditu eta Musikeneren Zuzendaritza Batzordearen pean jarriko ditu, batzorde horrek onar dezan, Idazkaritza Pedagogikoan erregistratuz.

6. artikulua. Hautazko eta aukera libreko irakasgaien urteko hezkuntza-eskaintza onartzea.

Eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan, departamentuetara iritsi diren proposamen guztiak aztertuko ditu Zuzendaritza Batzordeak, bai eta urteko hezkuntza-eskaintzan barne hartzea ere, hainbat irizpideren arabera: proposamena jarraibide orokorretara egokitzen den, titulazio bakoitzari nolako prestakuntza espezializatua ematen dion (hautazko irakasgaiak), ikaslearen zeharkako prestakuntzarako duen garrantzia (aukera libreko irakasgaiak), programazioaren originaltasuna eta ikasketa-planean betetzen duen hutsunea, besteak beste.

Hurrengo ikasturterako hezkuntza-eskaintza behin betiko osatzen duten hautazko eta aukera libreko irakasgaien zerrenda Musikeneren Zuzendari Artistikoak urtero emango duen ebazpen baten bidez argitaratuko da.

Artículo 5. Oferta y renovación de asignaturas optativas y de libre elección.

El profesor interesado en responsabilizarse de una asignatura optativa o de libre elección deberá remitir a su Director de Departamento la siguiente documentación dentro de los plazos establecidos a tal efecto:

1. Nombre de la asignatura, número de créditos, profesor o profesores responsables (si son más de uno se indicará la parte de la asignatura de la que se responsabiliza cada uno), especialidad a la que se adscribe (sólo en el caso de las optativas) y ratio máxima de alumnos por profesor.
2. Programa de la asignatura incluyendo contenidos, objetivos, metodología, criterios de evaluación y, en su caso, bibliografía o repertorio.
3. Informe en el que se defiende el interés de la asignatura para su inclusión como optativa para una o varias especialidades o como de libre elección.
4. En el caso de renovación de una asignatura ya existente servirá con entregar la actualización pertinente de sus datos y programación.
5. Si se trata de una asignatura obligatoria del plan de estudios que se desea ofrecer como optativa para otras especialidades, o bien como de libre elección, en ese caso bastará con el informe descrito en el punto tercero de esta relación.

Cada Director de Departamento recogerá las solicitudes de sus profesores y las elevará para su aprobación a la Junta Directiva de Musikene mediante registro en la Secretaría Pedagógica.

Artículo 6. Aprobación de la oferta educativa anual de asignaturas optativas y de libre elección.

Finalizado el plazo establecido para la entrega de solicitudes, la Junta Directiva estudiará cada una de las propuestas llegadas de los departamentos y evaluará su inclusión en la oferta educativa anual según diversos criterios: adecuación a las directrices generales, formación especializada que aporta a cada titulación (asignaturas optativas), importancia para la formación transversal del alumno (asignaturas de libre elección), originalidad de la programación y vacío que cubre en el plan de estudios, entre otros aspectos.

La relación de asignaturas optativas y de libre elección que conformen definitivamente la oferta educativa para el siguiente año académico se hará pública en una resolución anual del Director Artístico de Musikene.

7 artikulua.-Eskaerak aurkezteko epeak.

Musikeneren Zuzendari Artistikoak emandako ebazpenaren bidez jakinaraziko dira urteko hautazko eta aukera libreko irakasgaiak eskaintzeko edo berritzeko eskaerak aurkezteko epeak. Eskaintzak xede duen ikasturtearen aurreko ikasturteko bigarren lauhilekoan ezarriko dira epe horiek betiere.

Artículo 7. Plazos de solicitud.

Mediante resolución del Director Artístico de Musikene se harán públicos los plazos anuales para la entrega de solicitudes de oferta o renovación de asignaturas optativas y de libre elección. Estos plazos se situarán siempre en el segundo cuatrimestre del año académico anterior al que va destinado dicha oferta.

Donostia-San Sebastián, 4 de mayo de 2005eko maiatzak 4

Alejandro ZABALA LANDA
Zuzendari Artistikoa / Director Artístico